

# Gernika

Fernando Arrabal  
zuzendaria Ramon Albistur



HEBENTIK<sup>EK</sup>



HEBENTIK

UHARTEAN  
EKIN

**ANTZERKI LAN BAT DENONTZAKO**

## HARREMANAK

Hebentik Matalaz Karrika 64130 Maule

Mail : [hebentik@cegetel.net](mailto:hebentik@cegetel.net)

Web : <http://hebentik.wifeo.com>

Telefonoa : Ramón (00 34) 948 63 11 62 ; Pierre (00 33) (0)559 28 70 04

# Fernando Arrabalen Guernica

« Frankismoak gorrotoa, biolentzia eta heriotza erakutsi izan dizkigu. Baina gure belaunaldikook ez dugu duintasuna baizik hizkuntza bezala; bere izenean aldarrikatzen dut Francoren heriotza ez dela espainiar herriaren garaipena, ezta askatasunarena ere. Horregatik ez dut nik heriotza hori bestaz ospatuko. Berrogei urtetan zehar entzun dugun “gora heriotza!” oihua ez dut nik jaurti nahi». F. Arrabal, Le Monde egunkarian 1975ko azaroaren 22an, Franco bi egun lehenago hil berri zenean.

1937ko apirilaren 26an Gernika hiria bonbardatu zuen Condor legio alemaniarrak, Francok gidatutako militar espainiarren zerbitzuan Errepublikaren kontra izandako ofentsiban. Gernikakoa izan zen hiritarren kontra zuzendutako lehen bonbardaketa orokorra guden historian, gisa horretako ondoko bonbardaketei bidea zabalduz (Dresde, Hiroshima eta Nagasaki...), hauek are zientifikoagoak. Hiria mapatik desagerrarazteko zehatz mehats prestatua izan zen bonbardaketa. Izutzea, biolentziaren bidez nagusitasunaren erakustea eta etorkizunerako erresistentzi guzien makaltzea zuten helburua. Penintsulako ipar aldea konkistatzeko bidean zeuden jeneralak Bilbo hartzea sobera garestia gertatuko ote zitzairen beldurrez zeuden. Hiru ordutan zehar, txandakako pasaldietan, astelehen horretan azoka eguna zegoen Gernikan, eta inguruko hiriak sistematikoki suntsituak izan ziren. Biktimen kopurua inoiz ezin da onartua izan, baina masakre moderno horretan mila pertsona baino gehiago hil zirela erratea ez da gehiegikeria, ehuneko laurogei etxe suntsituak izan zirenean.

1959.urtean idatzia, Arrabalen antzezlanak azaltzen digu senar-emazte bikote zaharra bere etxean bonbardaketak bat batean harrapatuta eta bomba hiltzaileen jaurtiketa etengabea jasaten. Zerutik heldu den heriotzak hiria pixkanaka estaltzen duen bitartean, bizi garapen xume baten ikusleak izanen gara, non erranaldi ezaxol batek funtsezko zentzua hartzen duen. Baina ikuslea ez da gertaeren lekuko bakarra, zeren bertan agertuko dira ere militarren abrekeria eta erakusteko lanbidea dutenen zinismoa.

Irri edo negar egin behar da? Norberak ahal duena egin dezala. Fernando Arrabalen antzerkia ero, bortitz, zalapartatsu hartua izan da anitzetan, baina hori ez da ote bere lana munduaren idurian eginga delako? Iritzi guzien gainetik “Guernica” testua alaiki probokatzaileria da dudarik gabe. Guk bederen erronka hori hartu nahi izan dugu gure antzezlanean.

## Sortze lanaren istorio txikia

HEBENTIK\* taldeak Xiberoko Etxebarre herrian emateko asmoz, 2007.ko uztailaren 7 eta irailaren 1ean ospatutako adierazpen artistikoren egunaldien inguruan. Hirurogei biztanle dituen herri txiki horretan zenbait ekitaldi izan ziren: lau erakusketa (argazkiak, eskultura mugikor eta soinuak, altzairu moldatuak) eta sei ikuskizun (dantza, kantu, musika, antzerkia, olerki, piroteknia). 750 pertsona joan izan ziren egunaldi horietara. Hauen aitzinako maiatzaren 31an aitzin-estrenaldia eskaini zitzaizen Mauleko Saint François lizeoko ikasleei, hauek Espainiako 1936-1939 bitarteko guda zibila estudiatu bait zuten ikasurtean.

\* HEBENTIK: Xiberoko arte herrikoi eta sortze laneko lekua.

## Eszena zuzendaria, antzerkilariak eta musikaria

**Ramon Albistur**, eszena zuzendaria eta *aktorea militarra eta idazle roletan*.

Antzerkilaria eta eszena zuzendaria, baita ere antzerki formaziorako animatzailea 1983. urtetik. Formazio eta sortze lanerako mugaz gaineko egitasmoaren inguruan sortu zen BAI TEATRO (Irun 1988 - Bera 1999) antzerki konpainiaren fundatzailea izan zen. Ondoren, 2001. urtean, Esther Carrizo eta biek sortzen dute UHARTEAN, adierazpen antzerki eta clown eskola Beran (Nafarroa). Sortze lanaren eremutik haratago, biek garatzen dute MUGABECLOWN kultur arte anitz arteko egitasmoa, clown antzerkian formazioa eta sortze lana eskeintzeko. Ramon da ere BATA CLOWN (Gers) eskolako formatzailea.

**Ane Zabala Lira rolean**. Kazetaria, antzerkilaria eta clown da. Radio Euskadiko “7 calle del Trinkete” irrati saio famatuaren sei urte luzetan (1999-2005) sortzaile eta animatzailea izan da Galder Perezekin batera. Honekin ere eta zenbait bertze lagunekin GILKITXARO antzerki sortzaile eta taldekidea da, baita ere azken bolada honetan GLU-GLU ekoizpen etxeko partaidea. Anek maite du bi sortze lanak tartekatzea, kazetaritza eta antzerkia, bietan adierazpen eremu zabala aurkituz, biek elkar osatzen dutelakoan. Aipatutakoen aparte haur eta gazteentzako zenbait egitasmotan parte hartu du bai irratian eta telebistan, horietako aipagarriena Bilin-Bolon egitaraua (2000-2005). Telebistako zenbait serietan aktore bezala parte hartu du ere. Gaur egun, antzerkiaz gain, BILBO HIRIA IRRATIko esataria da eta PREST eta BERTON herri egunkarietan lan egiten ari da.

**Pierre Vissler Pantxo rolean**. Urte anitz geroztik ikuskizun munduan “soinu hartzailea / elektro-akustikoa” bezala ibilia, egun batean konpreni zuen antzerkia, dibertimendu edo moda huts baino, gizakien adierazpen era bat zela eta bertan oro murgiltzea erabaki zuen. Geroztik esperientziak anitz eta ezberdinak izan dira: Ruzanteren “*La Moschetta*” antzezlanean rol bat, Arte Komeriaren gertu, bertze rol bat Ph. Dorinen “*Sacré Silence*” sortze lanean, testu garaikide eta poetikoren lana, “*Deabru Ixila*” izenburuarekin Titika Rekaltek euskaratua eta Pierre eta biek antzeztua. Beranduago kale antzerkian zanko luzeen gainean ikusiko dugu txaman irmo bat antzeztuz. Aldi berean, festibal batzuen antolatzaileek egindako zenbait eskaerari erantzuten die, sortze gaitasuna berritzea eskatzen duten zenbait egoera orijinali aitzin egiten.

**Pierre Thibaud**, perkusio jolea *hegazkin bonbardagileen rolean*. Arte plastikoen zaletasunak Arte Ikusgarrirantz hurbilduko du: zirkoa, dantza, antzerkia. Kaleko arte adierazpenetan aritzen da, bere gaitasuna perkusioetan erakutsiz, soinu eskultorea balitz bezala, keinua zabalduz, koloreak azpimarratuz eraikuntzen margolariaren erara. Christian Vieussens Konpainiako egitasmoetan parte hartzen du urte anitz geroztik: jatorrizko musiken kontzertuak, herri musika, jazz eta musika garaikideak inspiratuak; « La Gueuse » izeneko polar teatral eta musikala ; « Chandelle » ikuskizuna, rugby gizonen istorioak. “Pilotar(h)itza” ikuskizuna XIRU festibalerako sortzerakoan, “Gernika” ikuskizuneko aktoreek eta Pierre Thibaudek elkar ezagutu zuten.

## Gidoia

Ziur aski merkatura joateko prest zeudenean, bonbardaketak harrapatu ditu Pantxo eta Lira bere etxean. Lira komunetan zegoelarik harri hondarpean harrapatua izan da. Hots, bera ezkutuan dago, bere ahotsaz baizik azalduko da. Ikuskizuna lehen bonbardaketarekin hasten da eta ondorengo bonbardaketek markatuko dute erritmoa, ama bat eta bere alaba ihes egiten, gero borrokan parte hartzen..., agertuko dira bitartean

Espainiako gerrari buruz sortzen ari den lan artistikoaz harro dagoen idazle batek istorioaren haria aldiz aldi etenda izanen da, begirale hutsa, interesatua, herriaren heroismoa glosatuz.

Nahiz bere etxe suntsituan isolatua, bortitz eta sadikotxoa den militar batek bikotea bisitatuko du.

Amaitzeko, senar eta emazteak bat egingen dute heriotzan azken bonbardaketa izanen denean. Une horretan agertuko da Lira xutik, esperantzaren azken kantu baten emateko.

## Eszenografia

Suntsiketa idurikatzen duten egunkariko ostozko zimurtuen multzoak sakabanatuak daude lurrian. Ezpazioa bi partetan zatitua da, argian dena eta horren gibelean iluna dena, bertan Lira ehortzia dago. Bien artean, iraganezina den muga bat. Zenbait tresna ezberdin harri hondarretan banatuta daude (irradi bat, saskia...).

Kanpoan, eskuin aldean, perkusio jolea kokatzen da, militarren erara kamuflatua. Berak egiten ditu bonbardaketak.

## Baldintza teknikoak

Iraupena : 60 minutu. Muntaia: 5 ordu. Desmuntaia: 2 ordu.

Barne edo kanpoko espazioan eman ahal da ikuskizuna. Kanpoan izanez gero, egunez edo gauez eman ahal da. Ikusle kopuru kontseilatua : 100/300 pertsona bitarteko.

Joko espazioa : 10 metro zabalera eta 8 metro sakonera. Eszena aitzinetik alde batetik bertzera pasatzeko espazioa.

Argiak : 8 rekorteak (edo 6 rekorteak eta 2 quartz), 4 PC, PAR 1.

Prezioa : 1 500€ + garraio gastuak (bi auto) eta egoitza eta mantenu osoa (lau pertsona gutxienez).

**Ez da ez alperrikako izan  
Hor ixuri dan odola  
Pentsa oraindik emaitz ederrak  
Ematekotan dagola  
Eusko gogoa armez ta indarrez  
Ezin hil leike iñola  
Gernika erre ziguten baina  
Zutik daukagu arbola**

**Basarriren bertsoa 1938ko otsailan**

# Zuhaitza zutik da

## KRITIKA

ANTZERKIA  
'GERNIKA'

AGUS PEREZ

**E**gunkari orri zimurtuek estaltzen dute eszenako behegaita, eta haien artean zumezko saski bat eta antzina-ko irrati handi bat ikusten dira, biak ala biak buruz behera, inguruko bonben eztandek iraulita. Esandako gauza xumeek ezin hobeto irudikatzen dute Gernika-ko bombardaketaren eguna, eta balio sinboliko handikoak dira, frankisten prentsako gezurrek urte luzez estali zutelako beraiek egindako triskantza.

Egunkari zimurtuen artetik, ordea, gizonezko bat agertuko da eta berari esker ezagutuko dugu han gertatutakoa. Bera bizirik irten da, baina emazteak zori okerragoa izan du, harrapatua geratu

baita harrien artean. Planteamendu gordin horretatik abiatuta, balio ubertsaleko antzezlan bat idatzi zuen Fernando Arrabalek bere Parisko erbestealdi intelektualetik, eta behingoz benetako zentzua eman zion berak hainbatetan jorratutako absurduaren antzerkiari, bi protagonistek bizi duten egoera absurdua benetako gertakizunetan oinarrituz. Bestetik, jakin beharra dago euskarazko bertzio hau iaz sortu zela, zubereraz, eta oso fidela dela frantsesezko originalarekiko.

Egileak berak idatzitakoari jarraiki, publikoak ahotsaren bidez ezagutuko du Liraren pertsonaia, eta Pantxorekin dituen solas arruntek kontrapuntu erdi irrigarria jartzen diote inguruko tragediari. Panorama osatzeko, Arrabal bera izan zitekeen idazle edo kazetari bat agertzen da behin edo behin, egun hartako gertaerkin liburu, film edo antzezlan bat idatzi nahian. Eta idazlearen figu-

raz gain, hitz egiten ez duten beste bi pertsonaia esanguratsuk zeharrikatzen dute noizean behin eremua: presaka doan emakumeak ederki irudikatzen du herritar

arrunten erresistentzia adoretzua; ofizial frankistak, aldiz, harropuzkeria erakutsi eta izua ekarriko dio Pantxori. Azkenik, eszenan dagoen beste elementu garrantzitsua bateria jolea da, haren lanaren bidez sortzen baitira suntsipenaren soinua ikaragarriak.

Baina testuaren interesarekin batera txalotzekoa da antzeppen guztien maila bikaina, batez ere Pierre Vissler eta Ane Zabalari dagokienez. Izan ere, bien artean osatzen duten bikote eszenikoak gizatasun hunkigarria erakusten du tragediaren erdian. Gainera, beren arteko hitz samurren azpian beste sakontasun bat gordetzen da gehienetan eta horrek ere ikuslearen zirrara areagotzen du. Emazteak, adibidez, aldiro aldiro galdegiten dio senarrari kanpoan so egin dezan, ea zuhaitza ere bota duten, eta senarrak beti esaten dio: «Ene muñu, zuhaitza xutik dun oraino».



Gernika antzezlano irudia. JACOBIA MANTEROLA / ARKAZO PRESS

**Egilea:** Fernando Arrabal.

**Euskaratzea:** Allande Etxart, Margarita Rekalte.

**Zuzendaritza:** Ramon Albistur.

**Eszenografia:** Gonzalo Etxebarria.

**Perkusioa:** Pierre Thibaud

**Argiztapena:** Zigor Gorostiola.

**Antzezleak:** Ramon Albistur, Ane Zabala, Pierre Vissler, Renate Dregger.

**Lekua:** Lesakako pilotalekua.

**Eguna:** Maiatzaren 17a.



Pierre Vissler (Pantxo) andrea hondakinen artetik ateratu nahian. JACOBIA MANTEROLA / ARKAZO PRESS

Berria 2008ko apirilaren 26a